


Informazioaren Teknologiai buruzko  
2 orduko ikastaroak doan  
autonomo eta mikroenpresentzat

# MIKROENPRESADIGITALA



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

EKONOMIAREN GARAPEN  
ETA AZPIEGITURA SAILA  
DEPARTAMENTO DE DESARROLLO  
ECONÓMICO E INFRAESTRUCTURAS



# HELBURUAK


2004ko ekitalditik hona, **Eusko Jaurlaritzak**, **SPRI** eta **EJIE**ren bitartez, Informazio Teknologien erabilerari buruzko 2 orduko prestakuntza ikastaroak ematen ditu autonomo eta mikroenpresentzat.

Egitasmo horren helburu nagusietako bat da **enpresen lehiakortasuna hobetzea, informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrien erabilera bultzatuz** eta, aldi berean, sarean negozio berriak garatzen laguntzea, ekonomia berriaren profesionalak gaitu eta haiei babesa emanez, eta, hori guztia, hazkunde ekonomikoaren faktore bereizgarri gisa.

**Mikroenpresa Digitala**-tik hainbat ikastaro planifikatzen dira hileroko; horiei plangintza orokorra esaten diegu, baina bestelako gai eta ikastaroak ere badaude, hainbat **Behargintzak**, Dendari Elkartek eta abarrek eskatuta antolatzen direnak.



[www.spri.eus/euskadinnova](http://www.spri.eus/euskadinnova)



# ESKAINTZA

## Zer ekintza eskaintzen dugu

Mikroenpresa Digitalak bi orduko oinarrizko eta doako ikastaroak antolatzen ditu hileroko, **beren negozio prozesuetan komunikazioen eta informazioaren teknologiak erabili nahi dituzten autonomo eta mikroenpresei** (10 langile baino gutxiago) **zuzenduta**, baita **Interneten erabilera intentsiboan eta estentsiboan** eragingo duen negozio ideia bat garatzen duten ekonomia berriaren sustatzaileei ere.

Ikastaroak autonomo eta mikroenpresetara hurbiltzeko zuzendu eta pentsatuta badaude ere, gaur egun profil mota guztiak joaten dira bertara, gaiak edozein enpresa eta lan egoeratarako egokitu baitaitezke.

## Nori zuzenduta daude

Tamaina handiagoko enprekin alderatuta, mikroenpresa eta autonomoen kolektiboak ditu adierazle txikiak negozioak kudeatu eta sustatzeko IKTak erabiltzeari dagokionez; horregatik, beharrezkoa da kolektibo horren prestakuntzan lan egitea.



# IKASTAROAK

**Merkataritza  
elektronikoa, online  
denda**



MERKATARITZA  
ELEKTRONIKOA

Ikastaro honen helburua da **negozio bat merkataritza digitalera egokitzeko edo hartan ezartzeko** orduan kontuan hartu beharreko **alderdi praktikoak eta legalak** ezagutzera ematea da (nolakoa den salerosketa prozesua, estali beharreko bermeak, Informazio Zerbitzuen eta Merkataritza Elektronikoen Legea, etab.).

**Tramite Telematikoak  
eta Ziurtagiri Digitalak**



E-ADMINISTRAZIOA

Administrazioarekin tramite telematikoak egiteko izan behar ditugun tresnak eta horiek nola konfiguratu ezagutzeko, baita **euskal administrazio publikoetan egin daitezkeen tramite nagusiak** ere.

**Metaposta Delivery  
Enpresen eraldaketa  
digitalerako irtenbidea**



E-ADMINISTRAZIOA

Metaposta Deliveryk dokumentazio konfidentziala **modu seguru eta legalean digitalki entregatzeko irtenbide bat** eskaintzen die erakunde guztiei.

Diseinu erraz eta intuitiboarekin, enpresa batek behar dituen funtzionalitate guztiak ditu dokumentazioa entregatzeko legezko irtenbide digital bat ezartzeko.

Metaposta Delivery kutxa gotor elektronikoen zerbitzua eskaintzen dio zure enpresari, zure agiri garrantzitsu guztiak seguru gordetzeko. Orain, Metaposta Deliveryrekin, enpresek **nominak, faktura elektronikoak, ziurtagiriak eta beste jakinarazpen batzuk** bidali ahal izango dizkiete beraien enplegatu, bezero eta hornitzaileei, agiri garrantzitsuen bidalketetan segurtasun handiena eskainiz eta kostuak aurreztuz.

# IKASTAROAK

**Egokitu zure enpresa datu pertsonalak babesteko legedira (lehenengo zatia eta bigarren zatia)**

Edozein sektoretako enpresa txiki eta profesional autonomoek datu pertsonalak babesteko gaur egungo legediak jasotzen dituen **printzipioak, eskubideak eta betebeharrak** ezagutzeko, enpresa batek esku artean erabiltzen dituen datu pertsonal guztiei dagokienez.

Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra 2016ko maiatzaren 25ean jarri zen indarrean, baina 2018ko maiatzaren 25era arte ez da aplikatzen hasiko. Bitartean, **LOPDk\*** guztiz indarrean jarraitzen du eta aplikagarria da. Datuak Babesteko Espainiako Bulegoak animatu egiten ditu erakundeak prestatzen eta egokitzen joan daitezen, Erregelamendua guztiz aplikagarri denerako.

Ikastaro honetan LOPDrekin bete behar dugun legezko oinarria azalduko dugu, arreta jarritz Europako Erregelamendu berriaren egokitzapenean.

Gainera, zuen webgunean, merkataritza elektronikoa edo **LSSIren\*\***

[\*] LOPD: 15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 13koa, Datu Pertsonalak Babesteari buruzkoa

[\*] Datu Pertsonalak Babesteko Europako Erregelamendua ((EB) 2016/679 Erregelamendua, pertsona fisikoen babesari buruzkoa, datu pertsonalak tratatzeari eta horien zirkulazio libreari dagokionez)

[\*\*] LSSI: 34/2002 Legea, uztailaren 1ekoa, Informazioaren Gizarte eta Merkataritza Elektronikoen Zerbitzuei buruzkoa.

Gomendatzen da izena bi ikastaroetan ematea (Lehen Zatia eta Bigarren Zatia), ikuspegi osatuagoa izateko, bigarrena lehenengoaren jarraipena baita.



E-ADMINISTRAZIOA

# IKASTAROAK

## Googleren tresnak hodeirako



GOOGLE APPS

Googleren lankidetzarako baliabideak enpresara aplikatzeko azterketa xehakaturia: **nola partekatu eta lan egin lankidetzarako dokumentuen gainean**, "Hodeia" kontzeptuaren ezarpena, nola kudeatu egutegi aplikazio bat zure enpresarako eta nola partekatu agendak.

Beste alde batetik, enpresarentzako erabilgarriak diren Googleren beste aplikazio batzuei buruzko azalpenak ere emango dira.

## Instagram: estrategia soziala eta bisuala zure negozioa sustatzeko



SARE SOZIALAK

Ikastaroa Sare Sozialen kategorian kokatzen da, Mikroenpresa Digitala programaren barruan, zeinean aplikazioak, tresnak eta trikimailuak proposatzen jarraituko dugun, gure markaren irudia hobetu ahal izateko.

Soziala izatea da joera eta, **irudi batek mila hitzek baino gehiago balio duenez**, Instagram bezalako sare sozialek gero eta erabiltzaile gehiago erakartzen dituzte egunez egun.

Ikastaroan Instagramek enpresentzat duen profilaren kudeaketa landuko dugu, brandinga hobetzeko, eta gure markan edo negozioan nola lagunduko digun nabarmentasun handiagoa lortzeko.

## LinkedIn: zure profila eta enpresa sustatu



SARE SOZIALAK

2002 urtean agertu zenetik, LinkedIn liderra da harreman profesional eta komertzialetara zuzendutako sare sozialen rankingean. Ikastaro hau sarrera moduan aurkezten da, sare sozial honen bitartez promozionatu, networking egin eta negozio aukerak bilatu nahi dituzten enpresa eta profesionalentzat.

# IKASTAROAK

**Facebook I:**  
sortu zure FanPage-a.  
Konfigurazioa,  
oinarrizko  
erabilgarritasunak eta  
publikazioen kudeaketa



SARE SOZIALAK

Ikastaro honek bertaratutakoei Facebooken erabileraren hastapenak irakatsi nahi dizkie, haien FanPageren erabilgarritasun nagusien kudeaketen eta konfigurazioen hastapenei ekinez.

Halaber, markaren eragin sortzaile eta biralizatzaile gisa tresna hau aprobetxatzeko estrategiez hornitzeko helburua du, horrela Interneten negozioak duen irudi soziala sendotuz.

Negozioaren **irudi korporatiboa Social Media eremura eramateko jarraibide nagusiak** emango dira.

**Facebook II:**  
zure Fan Page-a  
pertsonalizatu. Social  
Pluggins, Facebook  
Ads eta SEO  
Facebook-en



SARE SOZIALAK

Helburua da parte hartzaileek Facebooken tresnarik aurreratuenak ezagutzea jarraitzaileei informazio eta baliabide gehiago eskaintzeko eremuan, horiek fidelizatzen.

Zure negozio edo enpresak dagoeneko FanPage bat badu eta oinarrizko erabilgarritasunak ezagutzen badituzu (ikus Facebook I ikastaroa), ikastaro honek zure FanPageko **konfigurazioa pertsonalizatzen eta hobetzen** lagunduko dizu, zure jarraitzaileei eduki osoago bat eskaintzeko. Social Plugginekiko interakzioa ezagutuko dugu, eta Facebook Ads-ekin

# IKASTAROAK

**Twitter:**  
hazi eta neurtu zure  
eragin soziala



SARE SOZIALAK

Twitterren funtzionamenduari buruzko hastapenak, kontu bati alta nola eman azalduz. Bertarutzen direnei **profil erakargarri bat eratzeko aholkuak** emango zaizkio bezeroak eta jarraitzaileak erakartzeko, eta Twitter ingurunekeo kontzeptuetan trebatzeko aukera ere bai: birtxiokatzeak, joerak, timeline-ak, traolak...

Bertaratutakoak Twitter erabiltzeko prestatzen ditu, eragin sortzaile sozial eta marka biralizatzaile gisa **tresna hau aprobeatzeko estrategiak** eskainiz, eta bere negozioaren irudia Interneten finkatzeko.

**Hootsuite:**  
zure enpresaren sare  
sozialak kudeatzea  
ahalbidetzen dizun  
plataforma erabiltzen  
ikasi



SARE SOZIALAK

Hootsuite sare sozialetako hainbat kontu erosotasunez kudeatzeko aukera ematen duen tresna da, aplikaziotik atera behar izan gabe eta interfaze bakar batetik arituz. Ikastaro honetan **sare sozialetako edukiak nola ikus** daitezkeen ikasiko dugu, erabiltzailearen lehentasunen arabera antolatuz. Gomendagarria litzateke, ikastaroa modu ezin hobean jarraitzeari begira, parte hartuko duen pertsonak plataformarekin txertagarriak diren sare sozial batean edo gehiagotan alta emanda egotea (Facebook, LinkedIn, Twitter...).

**Canva:**  
zure irudi  
korporatiboa eta  
digitala nabarmendu  
(diseinatzaile ez  
direnentzako diseinu  
grafikoa)



MARKETIN DIGITALA

Canva-k eduki eta irudien konposizio desberdinak diseinatzeko aukera jartzen du zure esku, txartel bat sortzeko, edo zure sare sozial edo blogetan irudi bat sortzeko, newsletterren goiburuak egiteko eta marketineko askotariko dokumentuak eta materialak sortzeko.

Interfaze intuitibo eta erraz bat dauka, doako baliabide eta txantilo ugarirekin, eta aukera eskaintzen du halaber zeure irudiak eta logoak kargatzeko eta **diseinu erakargarriak sortu ahal izateko, diseinuaren profesionala izan gabe.**



# IKASTAROAK

**Bideo marketina: estrategia birala zure produktuak eta zerbitzuak sustatzeko**



MARKETIN DIGITALA

Bideoek emozioak sorrarazten dituzte: soinu eta mugimenduen konbinazioak sentimenduak eta erreakzioak transmititzen eta sorrarazten laguntzen ditu, eta hori aprobetxatu behar dugu gure marka eta Interneteko presentzia indartzeko.

**Online bideoak bultzatzea funtsezko urratsa da** edozein enpresaren **marketinaren estrategian**, merkaturatzen dituen produktu eta zerbitzuen eragina, zabalkundea eta engagement-a hobetzeko.

Ikastaro honetan, adibide errazen bitartez, ikusiko dugu nola enpresa txikiak ere baliatu daitezkeen baliabide honetaz, euren posizionamendua hobetzeko, webgunearen trafikoa handitzeko eta lehiakideen aurretik nabarmentzeko.

**SEO eta SMO web posizionamenduan lehen urratsak**



MARKETIN DIGITALA

Ikastaro honek parte hartzaileak SEOren (Search Engine Optimization) eta SMOren (Social Media Optimization) oinarritzko kontzeptuetan trebatzen ditu, bezeroak erosketara egiteko, erreserba bat egiteko edo izen emate bat egiteko bere webgunea bisitatzerara eramango dituen **posizionamendu estrategikoaren prozesu baten parte** gisa.

**Ezagutu zure negozioaren online ospea**



MARKETIN DIGITALA

Online ospea gure markak edo negozioak Interneten duen prestigioaren edo hari zaion estimuaren isla da.

Hain zuzen ere eremu honetan eragiten diote gainerako erabiltzaileek ospe horri, guri buruz hitz eginez eta iritziak emanez.

Hil ala bizikoa da **zertaz hitz egiten den jakitea, Interneten gure negozioaren ospea kontrolatzeko eta kudeatzeko**, eta krisi momentuetan nola erreakzionatu jakiteko.

# IKASTAROAK

## Blog korporatiboa I: aholkuak eta praktika onak



MARKETIN DIGITALA

Ikastaro honetara bertaratutakoak blog korporatiboen hastapenetan sartuko ditugu, gure negozioaren marketin eta sustapen tresna gisa.

Lan saio hau adibide eta praktika onekin hornituko dugu, gure **blogger fazeta berriari arrakastaz** eta gure negozioarako bermeekin **heldu ahal izateko**.

## Blog korporatiboa II: Wordpress.com-en hastapena



MARKETIN DIGITALA

Wordpress.com-en bitartez "Blog korporatibo I" ikastaroan landutako guztia praktikan jartzen jarraituko dugu, blog administratzailearen ikuspegitik, mahaigainaren funtzionaltasun guztiak ezagutuz: blogaren pertsonalizazioa, aukera guztien konfigurazioa, eta orri eta post-en publikazioak.

Gainera, estatistikak monitorizatzuz **gaitasun analitikoa garatzeko aukera** izango dugu blogean lortutako arrakastaren arabera.

Bertaratutakoei aholkatzen diegu aurretik "Blog korporatiboa I" ikastarora joatea. Izan ere, ikastaro honetan Wordpress kontuak sortzeari ekingo baitzaio halakorik ez daukaten erabiltzaileentzat, eta hori dela eta bertaratzen diren guztiei ikastarora kontua sortuta bertaratzea gomendatzen diegu.

## Zure negozioarako marketin mugikorreko estrategiak



MARKETIN DIGITALA

Mugikorra salmenta eta komunikazio kanal estrategikoa bilakatu da edozein tamaina eta sektoreko enpresen bezeroekin.

Ikastaro honetan ikasleak **mugikorraren iraultza** zuzentzen dituzten dinamikak ulertzeko oinarriak ikasiko ditu, eta batez ere negozioan/ingunean aplikatzeko ildo nagusiak.

# IKASTAROAK

## Mailchimp: Nola egin e-mailinga zure bezeroentzat



MARKETIN DIGITALA

Posta elektronikoko bidezko marketina **sustapen estrategia garrantzitsua da** enpresa askorentzat, eta onura handiak dakartza legezketasunari egokitzen bazaio eta praktika etikoei jarraitzen badie.

Gure bezeroen datu basea handitzen doan neurrian, kudeaketa automatizatu bat izatea beharrezkoa da, bidalketa handiak egitea eta horiek pertsonalizatzea ahalbidetzeko, denbora eta ahalegina aurreztuz. Gaur egun Mailchimp da dauden doako tresnen artean hoberenetakoa **bezeroen datu baseak sortu eta kudeatu** nahi dituzten enpresariarentzat.

## Produktiboagoa izateko aplikazio eta metodoak



ONLINE  
PRODUKTIBITATEA

Ikastaro hau gure lan inguruneari aplikatutako produktibitate kontzepturako hastapena da, eta bertarutzen direnak maiz arrastaka daramatzagun eta gure lan eta zereginak aurrera ateratzea oztopatzen diguten ohitura ez eraginkorretan sentiberatu nahi ditu, produktiboak izan daitezen.

Ikastaro honetan zirriborratuko diren metodo ugari daude (GTD, Pomodoro) aplikazioen laguntzaz **gure zereginen kudeaketarik onena egiteko**.

## Netvibes: txertatu Interneteko zure eduki eta iturriak



ONLINE  
PRODUKTIBITATEA

Ikastaroa NETVIBES doako web plataformarekin garatuko da. Tresna **honek zure enpresako informazioa modu erraz eta ikusgarrian antolatzeko aukera** emango dizu, izan zure feed RSS, zure sare sozialetako berritasunak edo zure helbide elektronikoen kontuak, begirada bakarrean zure interes pertsonal eta profesionalekoak diren informazio eta berritasun guztien berri izateko moduan.

# IKASTAROAK

Zure zereginak  
Trelloekin kudeatu  
eraginkorragoa  
izateko



ONLINE  
PRODUKTIBITATEA

Zereginen kudeaketa landuko dugu, Kanban metodologiara orientatutako ikuspegi batetik, eta bere aplikazioa, Trelloekin zereginak kudeatzeko joko arau batzuk ezarri ahal izateko.

Trello aplikazio bat da, zeinak **zereginak lankidetzaz bidez kudeatzea** ahalbidetzen duen, zutabez (zerrenda esaten zaie) osatutako taulen (board) bidez, zure proiektu edo zerbitzuaren lan fluxuaren egoerak erakusteko.

Proiektuak kudeatzeko Kanban metodoan oinarritzen da, egoeraren arabera, hainbat zerrendatan mugituz doazen txartelekin -txartelok zereginak adierazten dituzte-. Metodoa edozein lan inaurunetan aplikatu daiteke.

Kudeatu zure  
bezeroak, harremanak  
eta negozio aukerak  
Hubspot CRMrekin



ONLINE  
PRODUKTIBITATEA

Hubspot CRM tresna erraz eta doakoa da, eta bezeroak eta harremanak ezin hobeto kudeatzeko aukera emango digu.

Hubspot CRMren bidez bezeroekin edo bezerogaiekin egin dituzun interakzio eta harreman guztien jarraipena egin ahal izango duzu.

Horrenbestez, transakzioak bere etapa bakoitzean monitorizatu ahal izango dituzu: harremana egiten duzuetik salmenta gauzatzen den arte. Horrela, leku bakar batetik, **enpresaren profil komertzial guztiak sintonian egotea lortuko duzu.**

# IKASTAROAK

## Evernote: Antolatu zure negozioaren informazioa



ONLINE  
PRODUKTIBILITATEA

Evernote, edozein momentu eta tokitan mugikorreko edo mahaigaineko aplikazio baten bidez modu azkarrean sar zaitezkeen ohar eta libretak erabiliz informazio mota oro -pertsonala edo profesionala- hodeian gordetzeko aukera ematen duen tresna da.

Ikastaro honetan aplikaziorako hastapena ikusiko dugu, bere web formatuan, baita zure enpresako egunerokoan **negozioko informazio esanguratsua antolatzeko eta produktibitate handiagoa lortzeko** helburua duten eta instala daitezkeen tresna gehigarriak ere.

## Zibersegurtasuna



ZIBERSEGURTASUNA

Xede nagusia kontzientziatzea izango da, ulertuta informazioa aktibo nagusi bat dela enpresarentzat, eta bere segurtasunak erakundearen prozesu eta sistema guztiei eragiten diela, baina, batez ere, bere mendeko pertsonen. Ulertu behar da arrisku eta mehatxu horietako asko ez direla kanpoko iturrietatik etortzen (hackerren erasoak, etab.), baizik nahi gabe probokatzen ditugula, gure informazioa babesteko gutxieneko neurriak aplikatzen ez ditugulako.

**Ohiko mehatxuak eta horien aurrean nola erantzun** erakutsiko da. Horrez gain, mehatxuetakoren bat gauzatu bada, jarraitu beharreko jarraibideak ere azalduko dira, eta nori jakinarazi segurtasunean gertakari potentzial bat hautematen bada.

Gainera, instituzioen lana eta baliabideak zaintzeko balioko du, batez ere Zibersegurtasunaren Euskal Zentroari dagokionez.

# IZEN EMATEA

## Non ematen dira ikastaroak

Ikastaroak EJIek kudeatzen duen KZGunea zentroen sarean ematen dira, Euskal Autonomia Erkidegoko hainbat udalerritan banatuta.

Lea Artibaiko, Mungia aldeko, Galdakaoko, Laudioko, Amurrioko, Arabako Lautadako, Oñatiko, Arrasateko... eta Autonomia Erkidegoko edozein KZgunetan argitaratuko dira ikastaroak, baldin eta programatu daitezkeen artetik ikastaroa emateko izen emate nahikoa badute. Gehien erabiltzen diren zentroak hauek dira:

<b>Barakaldo</b>	<b>Dolores Ibaruri pasealekua z/g</b> (Ingurualde)
<b>Bilbo</b>	<b>Agirre Lehendakaria, 42</b> (Deustu)
<b>Donostia-San Sebastián</b>	<b>Ijentea, 1</b> (Alderdi Eder parkea)
<b>Eibar</b>	<b>Bista Eder, 10</b> (Portalea)
<b>Galdakao</b>	<b>Zabala, 35</b>
<b>Gernika-Lumo</b>	<b>Iparragirre 5</b>
<b>Getxo</b>	<b>Ogoño z/g</b> (Getxo Elkartegia eraikina, Areta)
<b>Hernani</b>	<b>Nafar, 18</b> (Kultur Etxea)
<b>Irun</b>	<b>San Juan Harria plaza</b> (CBA Kultur Gunea)
<b>Gasteiz</b>	<b>Alberto Schommer, 10</b> (Hegoalde Gizarte Etxea)

## Non eman dezakezu izena

Izen emateak **SPRI** webgunean egin behar dira:



[www.spri.eus/euskadinnova](http://www.spri.eus/euskadinnova)



HARREMANETARAKO

**Elena Imaz** (ARABA-BIZKAIA)

**688 629 059** prestakuntza1@kzgunea.net

**Itziar Núñez** (GIPUZKOA)

**688 629 458** prestakuntza2@kzgunea.net